2021eko abenduaren 20ko Herriko kontseiluaren bilduma

Présents / Hor zirenak: Mmes DARGUY, DUHALDE, ECHEVERTZ, OXARANGO, PEREZ, SABALOUE et MM BISCAY, GASTAMBIDE, HERNANDEZ, MONGABURE, OTEIZA, PARACHOU, BARNECHE et BARBIER

INBERTSIOA

Gastuak:		**Irabaziak**	
Erosgaia - Eragiketa	Zenbatekoa	Erosgaia - Eragiketa	Zenbatekoa
21568 (21) - 179: Suteen kontrako defentsa	-3 900,00	13258 (041): Gainerateko multzoak	15 000,00
2184 (21) - 141: Materialaren erostea	1 700,00	168758 (041): Gainerateko multzoak	29 905,45
2312 (23) - 178: Harrobiaren antolamendua	-2 600,00		
2313 (23) - 180: Beltzagitearen berritzea	10 000,00		
2315 (23) - 143: Herriko bideak	7 500,00		
2315 (23) - 146: Eliza	-10 000,00		
2315 (23) - 173: Merkataritza bulegoen antolamendua	-2 700,00		
2315 (23) - 173: Merkataritza bulegoen antolamendua	-20 000,00		
27638 (27): Gainerateko etxe publikoak	20 000,00		
276358 (041): Gainerateko multzoak	29 905,45		
2315 (041): Instalazio, material eta tresneria teknikoak	15 000,00		
	44 905,45		**44 905,45**

FUNTZIONAMENDUA

Gastuak		**Irabaziak**	
Erosgaia - Eragiketa	Zenbatekoa	Erosgaia Eragiketa	Zenbatekoa
6411 (012) : Langile titularra	4 000,00	74121 (74) : Baserrialdeko elkartasunerako emaitza	4 000,00
	4 000,00		**4 000,00**

Gastuak orotara	**48 905,45**	**Irabaziak orotara**	**48 905,45**

2. “Harrietakoborda” eta “Landaluxia” lotizamenduen buxetean aitzinatu diru zama itzulgarria

Bi lotizamendu horien proiektua kari, eraikuntzarako egokitzeko gastuak egin behar dira, lursailak salgai eman aitzin. 2 lotizamenduen aurrekontuetan, beraz, finantzamendu beharra bada, bakoitzarentzat 10 000 eurokoa.

Aurrekontu orokorrean badugu aski diru zama horien aitzinatzeko. “Harrietakoborda” lotizamenduaren aurrekontu gehigarrian 10 000 €ko zama itzulgarriaren onartzea eta “Landaluxia” lotizamenduaren aurrekontu gehigarrian 10 000 €ko zama itzulgarriaren onartzea proposatu da. Zama horiek lursailak salduko diren heinean itzultzen ahalko dituzte.

Herriko kontseilua ados da.

Aurrekontuen bozkatzea

FUNTZIONAMENDUA

Gastuak		**Irabaziak**	

Erosgaia - Eragiketa	Zenbatekoa	Erosgaia - Eragiketa	Zenbatekoa
6045 – Ikerketa eta zerbitzuen erostea (antolatzeko lursaila)	20 000,00	71355- Lursail antolatuen erreserba aldaketa (042)	20 000,00
Gastuak orotara	**20 000,00**	**Irabaziak orotara**	**20 000,00**

INBERTSIOA

Gastuak		**Irabaziak**	
Erosgaia - Eragiketa	Zenbatekoa	Erosgaia - Eragiketa	Zenbatekoa
3555 – Lursail antolatuak (040)	20 000,00	16878 – Beste organismo eta partikularrak	20 000,00
Gastuak orotara	**20 000,00**	**Irabaziak orotara**	**20 000,00**

Gai horri buruz, Geodenak Arrayet bulegoaren txostena urtarril hastapenean ukanen dugu, eta beraz, hortik goiti, heldu den urtean eraikuntzarako egokitzeko proiektu hori gauzatu nahi dugun ala ez erabaki beharko dugu; hots, hainbat puntu gauzatu ala erabaki beharko dira: Epfl-ari lursailaren berreskuratzea, bigarren lursaila alokatzen duenari berreskuratzea, lotizamendu araudiaren finkatzea, salmenta prezioaren finkatzea, herritarrei informazioaren zabaltzea eta erosleen hautatzeko moldeen ezartzea

3. BIGABAT HeBHeSaren eta herriaren arteko funtzionamendu hitzarmena

Aiherrako herria BIGABAR herriarteko pedagogia elkargoko kide da.

BIGABAT HeBHeSaren kide diren herrien parte hartzearen kalkulatzeko, herrian bizi diren haurren eta bi herrietako haur kopuru osoaren arteko proportzioa da kontuan hartzen. Herri bakoitzaren parte hartzearen finkatzeko, herriaren gain gelditzen dena kopuru horrekin biderkatzen da (gastuak ken zerbitzuaren irabaziak). Herriko kontseiluari proposatu hitzarmen proiektuan, parte hartzearen kalkulatzeko moldeak eta zenbatekoaren pagatzeko moldeak zehaztuak dira.

Adibidez: *Aiherrako banaketaren kalkulua = 40/82 = % 48,78 = A*
Isturitzeko banaketaren kalkulua = 42/82 = % 51,22 = B

BIGABAT HeBHeSaren eta herriaren arteko funtzionamendu hitzarmenaren onartzea proposatu da.

4. Herriko langileak BIGABAT HeBHeSaren esku emateko hitzarmena

BIGABAT HeBHeSa ontsa ibil dadin, Aiherrako herriko animazio eragile bat eta laguntzaile teknikoak haren eskura eman behar dira.

Langile bakoitzaren eskura emateko baldintzak Isturitzeko herriaren eta BIGABAT HeBHeSaren arteko hitzarmenetan zehaztuak dira.

Herriko langileak BIGABAT HeBHeSaren esku emateko hitzarmenaren onartzea proposatu da.

5. Aisialdi zentroaren eta herriaren arteko funtzionamendu hitzarmena

Isturitzeko Arberoan Alaiki aisialdi zentroa lau herrirentzat kudeatzen da: Aiherra, Isturitze, Donoztiri eta Donamartiri.

Herriek aisialdi zentroari ordaintzen dioten parte hartzea hiru zatitan banatzen da: asteazkenak, oporraldi ttipiak eta oporraldi handiak. Zati horietako bakoitzarentzat, banaketa gakoaren kalkulatzeko, herrian bizi diren haurren eta lau herrietako haurren kopuru osoaren arteko proportzioa kalkulatzen da. Zati bakoitzean herri bakoitzaren parte hartzearen finkatzeko, herriaren gain gelditzen dena banaketa gakoarekin biderkatzen da (gastuak ken zerbitzuaren irabaziak).

Herriko kontseiluari proposatu hitzarmen proiektuan, parte hartzearen kalkulatzeko moldeak eta zenbatekoaren pagatzeko moldeak zehaztuak dira.

Aisialdi zentroaren eta herriaren arteko funtzionamendu hitzarmenaren onartzea proposatu da.

6. Herriko langileak aisialdi zentroaren eskura emateko hitzarmenaren izenpetzea

Arberoan Alaiki aisialdi zentroa ontsa ibil dadin, Aiherrako herriko animazio eragile bat haren eskura eman behar da.

Langilearen eskura emateko baldintzak Aiherrako herriaren eta Arberoan Alaiki aisialdi zentroaren arteko hitzarmenean zehaztuak dira.

Herriko langilea aisialdi zentroaren esku emateko hitzarmenaren onartzea proposatu da.

7. 8. Herriko langileen ordainsari-araubidearen (RIFSEEP) aldatzea

2016ko urtarrilaren 1.az geroztik, Frantziako estatuko funtzio publikoan plantan eman ordainsari araubide berria, funtzioak, hertsadurak, gaitasuna eta engaiamendu profesionala kontuan hartzen dituena (RIFSEEP), Lurraldeko Funtzio Publikoan ordainsarien araubideen erreferentzia tresna da.

Funtzioak, hertsadurak, gaitasuna eta engaiamendu profesionala kontuan hartzen dituen ordainsarien erregimen berria (RIFSEEP) honela osatua da:

- funtzioei, hertsadurei eta gaitasunari lotu ordainsari bat (IFSE);
- urteko ordainsari gehigarri bat, engaiamendu profesionala eta zerbitzu emateko manera (CIA) kontuan hartzen dituena, laneko elkarrizketan oinarritua.

2018ko uztailaren 3ko deliberamenduaren bitartez, Aiherrako herriko langileentzat ordainsari erregimen bat plantan eman zen.

Batzorde teknikoak aldeko iritzia eman ondoan, ordaintzeko maiztasunaren aldatzea (urtean behin ordaindu ordez, hilabete guziz pagatzea) eta sail bakoitzaren gehieneko zenbatekoen aldatzea proposatu da.

Herriko kontseilua ados da.

8. Xokoa baserrialdeko bidearen zati baten kentzea eta besterentzea

2021eko ekainaren 7an, deliberamendu bidez, Xokoa baserrialdeko bidearen zati baten kentzeko eta besterentzeko proposamena kontuan hartu genuen. Ondotik, Françoise LACOIN-VILLENAVE komisario inkestagileari inkesta publikoa eginarazi genion, 2021eko irailaren 16ko erabakian hura baitzen izendatua izan.

Txosteneko osagai guziak kontuan harturik eta adierazpenak, oharrak, inkestan bildu erreklamazioak eta komisario inkestagilaren ondorioak irakurririk;

Inkesta zabaldu zenetik bi hilabeteko epea iragan dela eta interesdunek bide zatiaren zaintzaz arduratzeko sindikatu-elkartean biltzeko xederik adierazi ez dutela kontua harturik;

Baserrialdeko bide zati hori DIRATCHETTE anderearen etxera baizik joaten ez dela eta beste leku pribaturik zerratuko ez duela kontuan harturik;

Baserrialdeko bide zati horren 0.80€/m2-ko prezioan uzteko promesa kontuan harturik,
Komisario inkestagilearen aldeko iritzia kontuan izanik;
Xokoa baserrialdeko bidearen zati baten kentzea eta besterentzea proposatu da. Herriko kontseilua ados da.

9. Entzumen urriko jendeendako eta elkorrendako telefonozko harrera zerbitzua - EHEk eskura eman zerbitzuaren baliatzeko hitzarmena

Frantziako Errepublika numerikoaren aldeko 2016ko urriaren 7ko 2016-1321 legeari jarraiki, ahalmen urriko pertsonendako telefono zerbitzuen helgarritasunari buruzko 2017ko maiatzaren 9ko 2017-875 dekretuaren arabera, herriek eta herri elkargoek parez pareko eta telefonozko harrera elkorrei eta entzumen urriko pertsonei helgarriak izateko gisan egokitu behar dituzte.

Neurri horiek, 2020ko urriaren 7tik, 10 000 biztanle baino gehiagoko herrientzat beharrezkoak ziren; orain, lurralde-elkargo guziei dagokie, biztanle kopururik kontuan hartu gabe.

Herrietako eta herriarteko helgarritasunerako batzordeen sareko hautetsiek galdeginik, 2020. urtean, Hirigune Elkargoak bateratze aterabide bat aztertu zuen, kostuen ttipitzeko. Orduan, Elioz sozietateak saldu Elioz Connect aterabide teknikoa hautatu zen.

Elioz Connect zerbitzuari esker, erabiltzaile elkorrak eta entzumen urrikoak lurralde elkargoetako langile eta hautetsiekin mintza daitezke, telefonoz ala parez pare, LSF zeinu hizkuntzako, LPC ahozko hizkuntza osatuko, TTRP mintzoaren aldibereko transkripzioko ala transkripzio automatikoko urruneko interprete plataformaren bidez.

Agiri honi erantsi hitzarmenean, 2022ko urtarrilaren 1.etik goiti ezarriko diren moldeak zehaztuak dira, Euskal Hirigune Elkargoak Aiherrako herriari pertsona elkorrendako eta entzumen urrikoendako harrera zerbitzua eskura eman diezaion.

10. SDEPA bide zorra

Pirinio Atlantikoetako Energiaren Sindikatuak egin obrak kari, elektrikaren banatzeko linea bat (Herri barneko P1 postuaren indartzeko xedea duena) B 1562 eta B 1577 lursailetan lurperatu da (herriaren jabetza pribatua-Elixaldia lotizamenduko etorbidea).

B 1562 eta B 1577 kadastra erreferentziak dituzten lursailek bide zorra ukanen dute, baina urririkakoa, lurpeko obra horren pasaiarendako. Bide zor horren formalizatzeko, herriaren eta SDEPAren arteko administrazio agiri bat izenpetuko da.

Agiriaren sinatzeko baimena onartu da.

11. Herriko langileendako opari-txartelak

Herriko langile guziei “Pays Basque au cœur” opari-txekeen eskaintzea proposatu da.
Herriko kontseilua ados da.

Gainerateko gaiak:

- B 1412 lursaila: prozeduraren segida.
  EPFLekilako harremanen egoera, Jabegoen iritzia (ondasunen diru-balioari buruzko iritziak ematen dituen autoritatea) eskuratu ondoan.
  Bi aukera: DIAren zenbatekoaren onartzea ala erosteko lehentasunaren baliatzea, prezioa berrikusiz:
  - Jabegoen balioan (230.000,00 €)
  - **Iritzia baino prezio are apalagoan**

Bi kasuetan, jabeak erabaki hauek har ditzake:
Ondasunaren salmentatik kentzea, prezioa justiziaz finkatzearen galdegitea, prezioaren onartzea, Administrazio Auzitegiaren aitzinean erabakiaren kontra egitea (baztertu erosleak, berdin).

Prezioa berrikusiz erosteko lehentasunaren baliatzea erabaki da, herriko kontseiluaren xedeari jarraiki, herriko lurrak eta hirigintza kontrolatzen segitu nahi baitu.

- Bake Bideak azken preso politikoak askatzearen aldeko deia egin du, 2022ko urtarrilaren 08rako.

- 80 urte baino gehiagoko aihertarrei Eguberriko paketa banatuko zaie.

- Bide publikoan arazoa: Etxebarneko bidea eta Bordako bidea (Auxotetik luzatzea)

Bilkura 21:30ean bururatu da.

Besta on deneri eta heldu den urte arte

Arño Gastambide